

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 212. zkia. 2013ko maiatza




**Orain Mallabin  
nork jarriko du  
behar den ordena?**



# GREMIOEN

## GIDA



**DEKORAZIOA**  
OBREN KOORDINAZIOA \* MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**

FONTANERIA  
**B. DE DIOS**

Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktuak  
Komunetako altzariak  
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: hdedios@euskalnet.net

**PINTURAK**

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**ITURGINTZA**

Igeltserotza - Iturgintza

**Errekalde**

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com

**PERTSIANAK**

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**ARROZTEGIA**

**iraner**  
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdingeko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

**TAILER MEKANIKOIA**

AUTO-REPARACIONES  
**AREITIO, S.L.**

- Kamioia
- Furgoneta
- 4 x 4
- Makinaria

Tel.: 943 17 51 00  
areitio@areitiomotor.com  
www.areitiomotor.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone  
Amesti, Ibaia Azagirre,  
Leire Elustondo, Estibalitz  
González, Asier Ibaibarriaga,  
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Igone Amesti  
eta Ibaia Azagirre.

**LAGUNTZAILEAK:**

Angel Arregi, Amaia Arriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Maria González, Fede  
Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza  
eta Valentín Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, Angel Arregi,  
Ibaia Azagirre, Irantzu  
Barrondo, Bera Bera,  
Estibalitz González, Aitor  
López, Gonzalo López,  
Merkatari eta Ostalarien  
Elkartea, Valentín Mugarza,  
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Olatz Loiola, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.360 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## TXIRRISKILA Verdecillo. *Serinus serinus*



Kanarioaren familia berekoa, haren moduko kolore hori bizia du paparrean eta ipurdi inguruan, luma berdekkak tartekatuz hego eta buzta-nean. Arraren lumek horirantz jotzen duten bezala, emearen gorputzean berdea nagusi. Txori ipurterre hazi-jale hau, gure basoetako pinudietan ze jan gutxitxo topatu arren ere, erraz ekandu da habitat horretara eta habia ere pinu artean egiten du. Baserri, ortu zein txabolen ingurumarietan ere bisitari ezaguna da, lar ugaria izan ez bada ere. Apirilean ekiten dio arrautzaginan eta sasoi honetarako, maiatzerako, jaiota egoten da aldratxo; kumaldi bakoitzeko 3-4 kume, gehienez jota 5 izaten ditu. Txori noblea da, hurreratzeko lagatzen duenetakoa eta duen kantuagatik-edo sinpatikoa egin zait betidanik.

## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN ..... 16
Susi Guzmán, Ekuador	Jon Iñaki Isasti 'Joni'
ERREPORTAJEA .....5-7	KIROLZALE ..... 17
Felix Erauzkin	Aitor López arbitroa
MALLABIAN ZER? .....8-9	IRITZIA ..... 18
Juan Luis Mugarza 'Juanlo'	Kirol informazioa matxista da?
MOTZEAN..... 10-13	SALEROSKETAK ..... 19
Matxalen Ziarsolo, txapeldun	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? ..... 14	ANTZINAKOAK.....20
Paella erraldoia Ermuan	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
	KALEKO INKESTA .....21
	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA .....22

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Susi Guzmán

Aspaldi ezagutzen dugu Susi. 29, 28 eta 16 urteko hiru seme-alaben ama da. 1989. urtean etorri zen Ermura bizitzera bere senar Maxi eta bi semeekin, alaba txikia Ermuan jaio baitzen. 48 urte ditu eta bizitzaren erdia egin du Ekuadorreko San Carlos herrian, Los Ríos probintzian, eta beste erdia gurekin.

**- Nolakoa zen zure bizitza San Carlosen?**

San Carlos herri txikia da, bizitza etxean egiten genuen familiarekin, ez ginen hemen beste irteten kalera. Ermura etorri baino lehen unibertsitatean ikasten nuen irakaslea izateko eta bitartean semeak zaintzen nituen.

**- Zerk ekarri zintuen Ermura?**

Batxilergoa bukatzerakoan Maxi eza-gutu nuen, bera han misioetan zegoen beste hainbat euskaldun bezala. Ez zen denbora asko igaro ezkondu eta semeak izan genituen arte, zoritxarrez lau urtera Maxiren ama hil eta hiletara etorri ginen. Orduan erabaki genuen Ermura etortzea bizitzera.

**- Zeren arabera izan zen erabaki hori?**

Niri asko gustatu zitzaidan herria eta pentsatu genuen semeek hezkuntza hobea jasoko zutela hemen. Bestalde, Maxik ere lan baldintza hobeak izango zituen.

**- Zailak izan ziren hasierak?**

Neurri baten bai, familia faltan bota-



tzen nuelako eta bakarrik sentitzen nintzelako. Hitz asko ez dira han eta hemen berdin esaten eta komunikazioan zailtasunak izaten nituen batzuetan, dendentan esate baterako. Hala ere, denbora gutxiko kontua izan zen. Umeak, nahiz eta kurtso bukaeran etorri ikastolan hasi ziren eta nik berehala egin nituen lagunak: Euskaltegia, Emakumearen Sustapenerako Zetroat, Ikastolako beste gurasoak, Maxiren lagunak...

**- Lehenengo etorkinetakoa izango zinen garai hartan...**

Bai, gogoan daukat harritu ninduela Kubatar bat ezagutzeak! Ermura etorri nintzenean nire familiarekin telefonoz hitz egitea oso zaila zen, orain aldiz, Internet, WhatsApp eta halako aplikazioekin ikusi eta guzti egiten dugu elkar, zentzu horretan errazagoak dira oraingo migrazioak. Hango janak ere supermerkatuetan eros daitezke, horrek zure herri-tik gertuago sentitzen lagun zaitzake.

**- Zer izan zen gehien harritu zintuena?**

Eguraldiak. Hotz handia egiten zuen niretzat. Janariak ere desberdinak ziren, han ogirik ez dugu jaten arrosa baizik. Supermerkatuek ere harritu ninduten, dana hain antolatua ikusteak. Jendea oso serioa iruditu zitzaidan, oso ozen hitz egiten zuten eta haserre zeudela pentsatzen nuen.

**- Zer irabazi duzu eta zer galdu?**

Galdu, bertako familiarekin egoteko aukera. Irabazi asko, hemen han egingo ez nituzkeen gauza asko egin ditut emakumea izan arren, askatasun gehiago izan dut hemen.

**- Hemen geratuko zara?**

Bai, baina agian Maxi jubilatzen denean hilabete hotzenak han egingo ditugu. Nere seme-alabak hemen daude eta honezkero ermuarra naiz, asko eskertu beharra diot hain ondo tratatu nauen herri honi.

Ane Saénz

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen





## **Felix Erauzkin, txapeldunen artean, txapeldun**

Disko, xabalina eta pisu jaurtiketetan nabarmendu zen Felix Erauzkin ermuarra eta oraindik ere inork ez ditu bere markak gainditu: 19 bider izan zen Espainiako txapeldun, 7 bider gainditu zituen estatuko errekorrak eta xabalina jaurtikitzeko modu berria asmatu zuen, bestek beste. Gainera, Eitzagara bidean zeuden Serrerías Norteñas-eko jabeak disko jaurtiketako munduko txapelketa irabazi zuen 1979an, beteranoen kategorian. Drogeteniturriko orriotan, omenalditxo xumea egingo diogu Angel Arregi suhiak helarazitako dokumentuetan oinarrituta.


1907ko azaroaren 20an jaio zen Felix Erauzkin, Zea-nurin. Gorbeiaiko artzain Ceciloren semea zen eta umetan, aitaren makilak eta bidean topatzen zituen harriak hartu eta urrutira botatzen zituela diote aspaldiko egunkariak. Oraindik ez zekien afizio horrek poz handiak ekarriko zizkiola etorkizunean.

18 urterekin Delfin Ronda jaurtikitzailea ikusi zuen Igorren eta bere markak gaintzeko erronka hartu zuen. José Orue 'crossman' bizkaitarraren bitartez hasiko zen entrenatzen, honek Bilboko Athletic Clubera eramane baitzuen, eta San Mamesen burutu zituen Felixek lehen jaurtiketak.

Bere debutean Bizkaiko txapela lortu zuen diskoa jaurtikitzen, 1928an, baina, handik gutxira, hasiberria

zuen karrera alde batera laga behar izan zuen Marokora joateko, bertan egokitu baitzitzaion Soldadutza egitea. Itzultzean, kirola berriro ere gogoz hartu zuen. Garai horretan Bizkaian federaziorik ez zegoenez, Gipuzkoakoarekin lehiatzen hasi zen: 1932an pisu eta disko jaurtiketetan Espainiako txapeldun izan zen eta xabalina 2. postua lortu zuen, Tolosako Berazubi estadioan. Jarraian, garaipen-zerrendan ikus daitezkeen txapelketak irabazi eta errekorrak egin zituen, 1932 eta 1949 urteen artean.

Bere karrerako bigarren etena Gerra Zibilean egin behar izan zuen Felixek. Berari egindako elkarrizketa batean irakurri daitekeenez, gerra garaian trintxerak egiten jardun zuen zulatzaile moduan, eta Gerra aurretik irabazitako trofeoak, etxean



gordeta zituenak, eraman egin zizkioten.

Baina etenak egin ala ez, berdin zion: lanera bueltatutakoan errekorrak gaintzen jarraitu zuen Ermukoak. Hautsi zuen azken Espainiako errekorra 1948an izan zen, diskoan, 41 urte zituela, Portugaleteko Bomboneira estadioan.

Aipatzekoa da, gaur egun ere, Felix Erauzkin, García Tuñón, Ignacio Izagirre eta Miguel de la Quadra Salcedo direla historiako bakarrak jaurtiketaren lau modalitatetik hirutan Espainiako txapelketaren bat lortu izan dutenak.

#### Palankan trebea

Bestalde, euskal palanka jaurtiketaren ere 8 aldiz izan zen Espainiako txapelduna, 1933 eta 1957 urteen artean, eta modalitate horretan errekorra ere izan zuen hainbatetan. Euskal Herrian ez ezik Gaztelan eta Aragoian ere egiten zen herri-kirol

hau 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoetara joatekotan izan zen, lehiatzeko baino, erakustaldia egiteko. Baina, estatuko gobernu errepublikanoak Hitlerren gobernuak antolatu behar zituen joko horiei boikota egin zien eta kirolarien asmo guztiak bertan behera geratu ziren.

Arrazoiak arrazoi, Felixek ezin izan zuen nazioarteko txapelketetan parte hartu 1948ko Londreseko Olinpiar Jokoak heldu arte. 41 urte zituen jada eta, Espainiako disko txapelduna zen arren, Wembleyko lehiak kanporatua izan zen, 44,66m.ko jaurtiketa egin eta gero. 14. postuan geratu zen, 28 partaideen artean.

#### 'Erauzkin estiloa'

48 urte zituenean (1955ean) xabalina palanka moduan botatzen hasi zen Felix, hau da, biraka: jaurtiketa-marratik metro batzuk aldendu eta bira eginez gerturatzen zen marrra, indar zentrifugoa apro-

## GARAIPEN-ZERRENDA:

Espainiako txapelduna 19 bider:

- Pisu (9 aldiz): 1932, 1933, 1935, 1936, 1940, 1942, 1943, 1944 eta 1949.
- Diskoa (9 aldiz): 1932, 1933, 1936, 1940, 1942, 1943, 1945, 1947 eta 1948.
- Xabalina (behin): 1933.

---

Espainiako errekorra 7 aldiz gaintu zuen:

- Pisu (2 bider): biak 1936an. Bere 13,90m.ko markak 1948ra arte iraun zuen.
- Diskoa (5 aldiz): lehendabiziko biak 1936an eta berriro 1943 eta bi bider 1948an. Bere 44,49m.ko markak 1949 arte iraun zuen.

---

Bizkaiko txapelketetan 60 garaipen lortu zituen (1928tik 1961era): 20 disko jaurtiketaren, 19 palanka jaurtiketaren, 15 pisu jaurtiketaren, 4 xabalina jaurtiketaren, behin mailu jaurtiketaren eta beste behin jauzi hirukoitzean.

---

1979an, Munduko txapelketa irabazi zuen 70 urte baino gehiagokoan kategorian, disko jaurtiketaren.



Drogeteniturrri, 212 zkia.





betxatuz. Eta zergatik saiatu estilo berri batekin? Bada, xabalina jaurtikitzeko teknika berria aurkitu behar zuelako. Izan ere, 1933an zuntz-urradura izan zuen besoan eta ondorioz ezin izan zuen xabalinan berriro aritu.

Portugaleten erabili zuen teknika berria lehen aldiz, 100m. baino gehiagoko jaurtiketa lortuaz (munduko errekorra 83,66m.koa zen). Orduetik aurrera, garaiko kazetari eta kirolariek 'erauzkin estiloa' deitu zioten teknika berri horri.

Baina Felixen lagun eta jarraitzaile zen Miguel de la Quadra Salcedok akats barkaezina egin zuen 1956eko urriaren 12an. Melbourneko

Joko Olinpikoetarako 6 aste geratzen zirenean, 'erauzkin estiloa' erabili zuen Frantziako Jean Buin estadioan, erakustaldi batean, marka onak lortuta. Erakustaldia baino ez bazen ere, de la Quadra Salcedok erbia harrotu zuen eta arduradunak estilo berria aztertzen hasi ziren. Atletismoko arautegiak ez zuen zehazten jaurtiketa nola egin behar zen, baina teknika berri horri esker, errekorrak haustea erraza zenez, Atletismoko Nazioarteko Federazioak estilo hori debekatzea erabaki zuen, arriskutsua izan zitekeelakoan.

Garai horretako egunkariet diotenez, de la Quadra Salcedo estilo berria zabaldu ez ba-

## Felixek bi eten egin behar izan zituen: Soldadutzara eta Gerra Zibilera joateko

lu, Erauzkinek munduko errekorra erraz apurtuko zukeen Melbourneko Joko Olinpikoetan. Kontua da, hala ere, azkenean Espainiak ez zuela parte hartu 1956ko Joko Olinpikoetan arrazoi politikoak medio.

1979an egindako elkarrizketa batean irakurri daitekeenez, Felixek gaizki hartu zuen bere teknikari egindako debekua: "Nire estiloa ez zuten homologatu eta nik egindako lan guztia pikutara joan zen". "Zure estiloa aurrerapena zen?", galdetu zion kazetariak. "Dudarik gabe -berak erantzun -. Garai horretako errekorra 83m.koa zen eta nire marka 105m.koa zen. Baina Felix Erauzkin nintzen, Zeanurin jaioa, eta ez Frantzia, Britainia Handian, AEBen edo URSSen jaiotako beste inor".

### Munduko txapelduna

Felix Erauzkinek 1,84m. altuera zuen eta 108 kilo pisatzen zituen. Bizi izan zen artean jardun zuen kirola egiten, ez bakarrik gaztetan. Hori dela eta, Atletismoko Federazioak beterano maila

sortu zuenean, 1966an, 58 urte zituela, beteroen mailan lehiatzen hasi zen Erauzkin. Eta hainbat garai-pen lortu ere! Azken txapelketa 1979an irabazi zuen, 72 urterekin. Munduko txapel-dun izan zen diskoa jaurtikitzen, Hannoverren, bere garaiko kirolariei aurrea hartzen, tartean Cyboulenko handiari, besteak beste.

Felix Erauzkin arotza eta egur-industrialia izan zen ofizioz, Sallabente auzoan zegoen Serrerías Norteñas zerrategian. 1980. urtean utzi zuen kirola eta 1987ko maiatzaren 7an hil zen, Getxon, 79 urte zituela. Zendu aurretik, hainbat sari eta omenaldi jaso zituen.

Bilboko 'Kili kili' aldizkarian 1980. urtearen bueltan egindako elkarrizketan kazetariak egindako azken galderak hauek izan ziren: "Gaur egun ba al da palankaririk?", "Ba dira...", "Etorkizunik?", "Euskararen etorkizunaren antzekoa -erantzun zuen Felixek-: geuk egiten ez badugu, Pankorbokoek ez dute egingo..."

Dorleta Vidal

Athletic Clubeko Piru Gaiatzarekin batera Don Quijote saria jaso zuen.



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Giltzak
- \* Tresneria
- \* Zerrailgintza
- \* Brikolaia
- \* Kit altzariak
- \* Rielak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**ONTINDIA**  
**HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44  
 48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

**TELEFLOR INTERNATIONAL**

Zubiaurre 14  
 Telef. 943 17 28 88  
 48260 ERMUA

**EGUZKILORE**

Juan Luis Mugarza, 'Juanlo', 58 urte:

# “Aguazil lanetan guztire 33 urte ein dittuaz”

- *Jubilau barri zauezela jakin dogu...*

Egixe esan eneban espero! Bajan egon nintzen urtebete eta medikuek esan eusten tribunala pasau biher nabela eta igual biherrera bueltaraziko ninddutela... ta zer egin neban? Ba, Eibarrera bajatu ta biherre-rako erropa barrixek erosi! Tribunal pasau, papelak han-hemen aurkeztu nittun zertarako zien jakin barik eta handik gitxire udaletxetik deittu ninduen. Hara jun nintzen biherrien noz hasi bihar nintzen esango eustela pentsatzen... ta Milak notizia on bat zeukela, inbalideza emon eustela esan eusten. Total blokeaute geratu nintzen, zer pasatzen zan jakin barik! Gero bai, poztu nintzen! Hori bai, biherrera ez nintze-nez bueltau biher, neuk pagau nittun erropak!

- *Zelan hasi ziñen aguazil lanetan?*

1979xen Udalak lan poltsa bat zabaldu eban 25 urtetik 45 urte bitarteko mallabitarrontzako. Lehengusuek esanda emon neban izena. Sasoi hartan, tailerrien eitten neban bihera eskopetak egitten, ta lan kontuek txarto euezan. Bost lagunek emon gendun izena eta urte horretako inuzente egunien elkarrizketie egin eta neu aukeratu ninduen. Aguazil lanetan 1980ko urtarrilaren 2xen hasi nintzen eta 1982xen funtzionario titulue etara neban, ta orduen emon eusten uniformie eta txapel gorrixe. Aguazil lanetan guztire 33 urte egin dittut.

- *Zelan gogoratzen dozu lanien hasi zinen momentue?*

Lanien hasi eta gitxire, bere lehen txapelaz, Bastida tabernan.



Hasi nintzenien ez neuken inor biherrek erakusteko. Orduko sekretarixuek “*éste ya sabrá lo de Mallabia*” esan, ta giltzez betetako pote bat emon eusten: “*hay tienes todas las llaves de los depósitos y ahora arréglatelas*” izen zien bere berbak!

- *Zer egitten izen dozu aguazil moduen?*

Danetik: uran kontadorak begittu, aberixak konpondu, auzoko jaixetan falta zana eruen, papel kontuek... ta lehenengo urtietan sekretarixuan “*tráeme tabaco*” agindduei be kasu egin biher.

- *Lanetarako laguntzailerik auki izen dozu?*

Sasoi hartan neuk bakarrik egin ezin nittuen lanetarako Udalak orduko langiliek har-

tzen zittuen. Azken urtietan brigadako gaztiek euki dittut onduen.

- *Zer da zure biherretik gitxien eta gehixen gustau izen jatzune?*

Aguazil lanak ez dienak! Jajaja. Aguazil titulue dauket, baina niretzako hori da biherrik eskaxena: trafikokontuek, entierreak... hori kendute gainontzekoe gustora egitten neban! Soldadura, konponketak... mobimientuko bihera gustatzen jata ta!

- *Aguazilan bihera multak jartzie be izengo zan ezta?*

Jajaja, bai baina... 33 urtien bakarra jarri dot. Xelebrie izen zan. Plazara 20 toneladatik gorako kamioirik ezin zan sartu. Ta herriko kamioi gidari bati, plazan 25 toneladako kamioie ikusite ba-

## JUANLO AGUSILLARI

Autoridade goren  
Txikietan haundiena  
Festa giroan festazalea  
Lanean zuzena  
Nahiz da desio onena  
Denok hartzen dugu pena  
Orain Mallabin nork jarriko du  
Behar den ordena?

Mallabia, 2013ko apirilaren 19a

**Ferreteria/Burdindegi**

**ANBOTO**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



rriro kamioie plazara ez sartzeko abisue emon neutzen. Handik gitxire, plazara debekatuteko norabidien igo zan, ta orduen esan notzen adarrrik ez joteke! Handik 15 egunera atzera be kamioie plazan! Orduen, udaletxekuekin berba egin ostien, 1.000 pezetako multie jarri neutzen. Multioi, udaletxetik trafikora bialdu eben ta trafikotik gidarixai, toneladako 5.000 pezetako multie ailegau jakon! Guztire 125.000 pezetako multie!

- ... **gidarixek hasarre handixe hartuko eban...**

Bai bai. Folloie egon zan... Egun horretan plene euen iluntzixen, eta bertan berba egin ostien akordu batera ailegau giñen. Multie anulatzie, bi bildotsen orde! Azkenien, idi probetarako harrixe Markine Etxebarritik ekarri eta eruteko kamioie biher zan, te berak egin zittuen biajiek, ta horrekin amaitxun zan kontue!

- **Lan honi esker lagun eta harreman polittek be egingo zenittuen ezta?**

Bai, bai. Auzo, baserri, baitte herrixen bertan be! Oso ondo jaso nabe leku danetan. Auzo danetan beti nonor euki dot prest

laguntzeko ta udaletzeko langile askorekin be oso ondo konpondu naz.

- **Despedidie be auki dozu ezta?**

Bai, lruzubitten ein gendun bazkarixe, 24 bat lagun elkartu giñen udaletzeko langile eta zinegotzien artien. Ekipo konpletue! Aguazil txapel gorrixen eta Beñat Ugartetxeak egindeko bertsue quadro baten elegante ipinitte oparitu eusten. Ta pozik! Emozionantie, hainbeste urte ta gero... gustora egon giñen. Inguruko herrixetako aguazilen bazkaixe be laster dauket, urtien behin batzen gara eta.

- **Badakizu ordezkorik eukiko dozun? Zer aholku emongo zeunkixo?**

Eztakit ordezkorik egongo dan, oin gauzak aldatute dagoz eta. Nonor sartzen bada, zorte ona opa deutset, trankil ibili daittela eta jendie errespetuz tratatzeko esango neunkixo.

- **Ta oin, zelan pasatzen dozu denborie?**

Biherrien! Aguazil lanetan ez, baina biher morduaz! Trankillau nabil, baina biher askorekin!

Igone Amesti  
eta Ibaia Azagirre

## SAN ADRIAN JAIXEK GERIEN

Ekainak 14, barikue

7:00, Txopue jasotzie.

Ekainak 15, zapatue

16:00, Txokolatadie auzoko umientzat.

17:00, Briska Jokue.

Ekainak 16, domekie

11:00, Mezie. Ondoren, bertsolarixek: Iker Garitagoitia eta Txaber Altube.

Dantza Alai taldian saiue.

Herri Kirolak: Ureta, Zelai IV, Maider eta Karmele.

Umien jolasak

18:00, Asto Probak: Bittorio Zelaia, Esparru, Satzibar eta Zubibarrri. Amaitzeko janariz eta edariz betetako karretillakada eta ardo botillian zozketie.

## MALLABIKO III. GAZTE EGUNA

Datorren ekainaren 15ien Gazte Egune antolatu dau Mallabiko Ernai taldiek. Egun guztiko jaixe izengo da, eta beste ekintza batzuen artien, honek antolatu dabez:



12:30, Bertso poteue

Gorka Maiz eta Endika Igarzabal bertsolarixekin.

14:30, Bertso bazkarixe (tiketak egongo die salgai).

17:00, Herrikuan 20. urteurrenerako Lip Dupan grabaketa.

22:00, Kontzertuek: Inedituak eta Katekesize.

## AUZO BATZARRAK ETA LUDOTEKA

Maiatzaren 27tik ekainak 6ra bitarteko astelehen eta eguenean, arratsaldeko 19:00tan Kultur Etxien auzo batzarrak eingo die, auzotarren barri zuzena izeteko, informazinue trukatu eta proposamenak jasotzeko asmuaz.

Uztailien, umien ludoteka jarriko da martxan. Horretarako izena emoteko epie ekainan amaitxuko dala jakinarazi dabe udaletzeko ordezkariexek. Honen inguruko informazino gehixa nahi izenez gero, gerturatu Kultur Etxera.



**Makina Erremintaren Institutua**  
Instituto de Máquina Herramienta



**IMHn, Maiatzaren 25ean, 11:00etan**

**Informazio Saioa**

etortzeko deitu 943744132ra / [www.imh.es](http://www.imh.es)

**DBH Ondoren?**  
**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

**BATXILERGOA Amaitzean? GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 urte)**  
eta lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren egiteko pentsatutako **INGENIARITZA DUALA** (alternantzian ikasi eta lan)

**Erdi-maila**

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

**Goi-maila (ALTERNANTZIAN ERE)**

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia

**GRADU DUALA**

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

**IKASTAROAK ETA TXANGOAK BERBALAGUNEN AZKEN TXANPAN**

Ekainaren 6an palindromoei buruzko hitzaldia izango da eta hilaren 12 eta 19an soin-keta abdominal hipopresiboko ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da. Ekintza biak 19:00etan izango dira, Lobianon. Txangoei dagokienez, ekainaren 1ean 'Ermua Ezagutuz' ibilbidea egingo da, 11:00etan Patxi plazatik irtenda eta hilaren 8an Deba-Zumaia ibilbidea egingo da. Egun erdiko txango honetan parte hartu nahi dutenak, 9:00etan egon beharko dira tren geltokian. Edizio bukaera ospatzeko afaria egingo da ekainaren 21ean eta aurretik txikiteokide berria abiatuko da Herga tabernatik, 20:00etan. Informazio gehiago: 639414205 edo ermua\_berba@aek.org helbidetan.

**Maiatzaren 25eko 'III. Gaua Zabalik' egun osoko ekitaldia izango da**

Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkartek III. Gaua Zabalik burutuko du Ermuan maiatzaren 25ean, larunbata. Ekimenaren helburua "bezeroei behar dituzten gauzak prezio onetan erosteko aukera ematea da, beherapenei itxaron barik", elkarteko lehendakari den David Gómezen arabera. Horretarako dende ordutegi berezia izango dute eta 22:30etik 1:30era egongo dira zabalik. Deskontuei dagokienez, denda bakoitzak erabakiko du zein ehunekotan jaitsiko dituen prezioak edota bestelako promoziorik egin nahi duten. Gauean erosten dutenen artean, gainera, 350 euroko erosketa-txekea zozketatuko da. Baina aurtengo edizioak berrikuntzak ditu eta goiz-goizetik hasiko dira ekimenak herriko zenbait tokitan. Plazan 3x3 futbol txapelketa egingo da eta 12:00etatik 14:00etara umeentzako tailerrak egongo dira. Arratsaldean, berriz, Galiziako Umeen Musika Bandak kalejira egingo du. Gauean, 'Granujas a todo ritmo' taldeak herriko kaleak alaituko ditu 22:15etatik 00:00etara. San Pelaioko parkean umeentzako parkea ipiniko da puzgarriekin eta 19:00etatik 00:00etara 'jumping' egiteko aukera izango dute helduek. Leire eta Iker Elustondok kontzertua eskainiko dute Komentukua kalean 23:00etatik 00:30ak arte. Ordu horretan 'chill out' gunea ipiniko da plazan, dj batekin, eta DQ Mouth eta Titanic tabernekin Gin Tonic bereziak zerbitzatuko dizkiete bertaratzen direnei. "Aurreko urteetan oso emaitza onak lortu izan ditugu -dio David- , batez ere moda, zapata eta osagarriak saltzen dituzten dendetan". Izan ere, aukera zabala dago edozer topatzeko 36 dende eta 16 tabernekin hartuko dutelako parte, tartean, bitxi-dendak, loradendak, informatika dendak, optikak, okindegiak eta ile-apaindegiak, besteak beste.

**Udan, Akerlei Formazio Zentroak bi aukera eskaintzen dizkizu:****English Fun**  
kanpamentua FORMIGALEN

English experience

Mantenu osoa  
Eskolak  
Talde-jarduerak  
Ingelesa ikasteko murgiltze-osoak

Ekainaren 30etik, uztailearen 13ra  
8 eta 15 urte bitarteko umeentzat  
Tenako bailaran, Aragoiko Piriniotan

**Udalekuak 2013**  
Ingelesez eta Euskaraz

Akerlei Hiri Udalekuak 2013

6 eta 10 urte bitarteko umeentzat  
Ekainaren 24tik uztailearen 19ra arte  
9:30etik 13:30era



Eskola tematikoak  
Sukaldaritza  
Animatuko zara?  
Tailerrak  
Inteerrak  
Jolasak  
eta askoz gehiago  
Euskaraz eta ingelesez

Izena emateko  
azken eguna:  
Ekainaren 7a (ostirala)

Deitu edo etorri gure zentzora

**Akerlei**  
idiomasBizkaia etorbidea 5  
943 17 66 32



## Matxalen Ziarsolo eta Bera Bera, txapeldunak



Donostiako Bera Bera eskubaloit taldeak Liga irabazi berri du. Garaipen honekin denboraldia borobildu dute Reyes Karreren neskek, Kopa eta Superkopan ere garaipena eskuratu baitute. Matxalen Ziarsolo ermuarra dute kapitaina eta honen arabera hiru garaipen horiekin taldeak helburu guztiak lortu ditu. *“Europako Rekopan ere ondo aritu gara eta gogoratzekoa da final zortzirenetan Poloniaren kontra jokatu genuen partida, 12 goleko aldea izan arren, partida erremontatzea lortu baikeuen. Horrez gain -dio Ziarsolok-,*

*afizioa ‘egin’ dugu, gero eta gehiago izan direlako Bidebietara gu ikustera etorri direnak. Oso pozgarria da”.* Historiako lehen Liga irabazi eta gero, Bera Berakoek agur esango diote entrenatzaileari eta datorren urterako erronka lehen postuetan jarraitzea izango da. *“Liga irabazi dugunez, Europako Champions League-n jokatu dugu, sailkapen partidarik jokatu gabe. Oso pozik gaude nahiz eta oraindik ez dakigun klubak egin beharreko inbertsioari aurre egin ahal izango dion”.*

## TXINDURRI EGUNA EKAINAREN 8 ETA 9AN IZANGO DA



Ekainaren 8an, larunbata, Adolfo Jainagaren ‘Plazara dantzara’ ikuskizuna egongo da plazan 19:30ean eta 21:00etan larraindantza herrikoia egingo da. Domekan, hilak 9, txistularien diana 10:00etan eta ordubete beranduago, dantzari eta txistularien kalejirak herriko bazterrak girotuko ditu berriro ere. Taldeak erakustaldia egingo du plazan 12:30ean eta egunari amaiera emateko bazkari autogestionatua eta erromeria egingo dira leku berean.

## Juanma Rodríguez ermuarra, Ingalaterran aktore



‘Mr Whatnot’ antzezlanaren protagonista lanak egin berri ditu Juanma Rodríguezek Ingalaterrako Royal Theatre of Northamptonen. Guztira 25 saio egin ditu eta antzezlan ingelesez izan arren Juanmaren pertsonaia, Mint, mutua zen. (Antzezlanaren aurkezpena: youtube-n, ‘Mr. Whatnot’ idatzi). Gaur egun Juanma Madrilen dago, ‘Germanía de Teatro’ taldearekin eta laster izango da gure artean.

**Beti dago  
lehen aldi bat  
edo zertarako...**

Honetarako, hartarako... badakizu. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeko unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

**10€**

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

[eroski.es](http://eroski.es)

**EROSKI** online  
zurekin

**IRAKURKETA KLUB BERRIAK URRIAN**

Maiatzaren erdialdean Udal Liburutegiak izan dituen irakurketa klubak azken 2 saioak burutu ziren, bat euskaraz eta bestea gaztelaraz. Uda ostean martxan ipiniko dira klubok berriro ere eta parte hartu nahi dutenek liburutegira joan, 943179212 telefonora deitu edo [biblioteca@udalermua.net](mailto:biblioteca@udalermua.net) helbidera mezua bidali beharko dute. Klub horietan parte hartzea doakoa da baina plaza mugatuak daude. Liburutegiak, bestalde, ordutegi berezia izango du ekainaren 23ra arte, azterketa garaia delata. Astelehenetik ostegunera, 9:30etatik 00:00etara; ostiraletan, 9:30etatik 20:30etara eta asteburuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etarik 20:00etara.

**EMAKUMEAREN TOPALEKUAREN TAILERRA**

Maiatzaren 28an 'Grey y otros fenómenos extraliterarios' tailerra antolatu du Emakumearen Topalekuak Lobianon, 18:00etan. Skolastika enpresako Josune Muñozek gidatuko du tailerra.

**Euskal Birusak hainbat ekitaldi burutuko ditu**

Ekainaren 23an, domeka, San Juan sua antolatuko du Euskal Birusak urtero legez. Antolaketan lagundu nahi duten herritarrak ongi-etorriak izango dira eta gainontzekoei, antolatzaileek ematen dituzten jarraibideei kasu egitea eskatzen die Elkartek. Bestalde, San Martin laguntzaileen txangoa ekainaren 22an egingo da. Zein leku bisitatuko den oraindik erabakitzekeo badago ere, azoka egunean laguntza eskaini zuten herritar guztiak gonbidatzen ditu Euskal Birusak. Informazio gehiago jasotzeko, 943179350 telefonora deitu, [euskalbirusa@euskalnet.net](mailto:euskalbirusa@euskalnet.net) helbidera idatzi edo Elexostera joan beharko da. Ermuan Kantuan, azkenik, maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean egingo da.

**Caritasek ikastaroetako diplomak banatu ditu**

44 ermuarrek jaso zuten diploma apirilaren 29an, sukaldaritzan, jostintza edota eskulan ikastaroetan parte hartu eta gero. Ikastaro horiek Caritasek 'Familia eta Gizarteratze Programa'ren barruan daude eta erakunde honen harrera programetan parte hartzen duten norbanako eta familiei zuzenduta daude. Irakaskuntza transmititzea baino,



batzeko lekua eskaintzea eta jarrera positiboak eta erantzukizunak hartaraztea dute helburu. Jostintzako tailerretan 15 lagunek hartu dute parte (Angelines, Carmen, Mari Carmen eta Mari Nievesen gidaritzapean); sukaldaritzakoan 17 neska-mutil (Ana, Benita eta Mari Carmenek gidatuta) eta eskulanetan 12 lagun (Rafi eta Lucia irakasleekin). Aipatu beharra dago begiraleak boluntarioak direla eta egindako lana eskertu nahi die Caritasek. Era berean, Gaztela Leongo elkarteari sukaldaritzan ikastaroa egiteko lokala lagatzea bihotzez eskertzen diote antolatzaileek. Urtero burutzen diren ikastaro horiez gain, Caritaseko Oizeko sektoreak (Ermua, Mallabia, Berriz eta Zaldibar batzen dituen) Hazia programa ipini du martxan aurrenekoz. 9 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta 4 esparru ezberdinetan eragiten du: higiene eta elikaduran, eskola-laguntzan, aisialdian eta abilitateetan. Umeak astean birritan batzen dira elizako lokaletan lan hori burutzeko formazioa jaso duen begirale taldearekin. Honetaz gain, beste proiektu batzuk ditu Caritasek Ermuan: Ekorropa denda, 2 harrera programa eta 'zubi-etxebizitza' bat.

**NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com)

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**  
(asteartetan itxita)

**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA**

**ETXERA**

**SEHIGA**

**LAN-BABESA**

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
[sehiga.proteccionlaboral@gmail.com](mailto:sehiga.proteccionlaboral@gmail.com)

**OUTUMURO Kafetegia**

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

*Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**

**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44





Udal euskaltegia, bertan gaituzue!

**Teresa Murga Eraikina**  
**Goienkale z/g, 2. Solairua**

**☎: 943170925**

**[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)**

**<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>**

Bulego orduak:

9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara



### IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

*Azterketak urrian*

#### **EDUKIAK**

Maila guztiak

- 1.Maila (B1) = 1 HE
- 2.Maila (B2) .....= 2 HE
- 3.Maila (C1) EGA = 3 HE

#### **NOIZ**

Irailaren 2tik 27ra

#### **ORDUTEGIAK**

- 9:00etatik 13:00etara (80 ordu)
- 16:00etatik 20:00etara (80 ordu)

**MATRIKULAK UZTAILAREN 5-ERA ARTE**



# 800 lagunentzako paella egingo da Ermuan ekainaren 15ean

Bazkari erraldoi hau prestatzeko 2'5 metroko diametroa eta 230 kiloko pisua duen paella-ontzia erabiliko du Jesus González ermuarrak. Tiketak 4 eurotan salduko dira (paella, ogia, edaria eta kafea) eta jasotako diru guztia egoera ekonomiko latza bizi duten Ermuko familiek jasoko dute.

**A**spaldian bururatu zirtzaion Jesus González paella erraldoia egitea; galdarategi batean lan egiten duen Beasaingo senide batek paella-ontzi honen berri eman eta gero, hain zuzen ere. Bazkari honetan, gainera, elkartasunak berebiziko garrantzia izan behar zuen eta proiektua aurrera ateratzeko lanean hasi zen Jesus.

Bazkarirako egun egokia bilatzen zebilela, Jardunaldi Gastronomikoen asteburu berean paella egiteko proposamena jaso eta baietza eman zuen. *"Udalean baimenak eskatzeko, Jardunaldien antolatzaile Jesús Portugalen laguntza izan dut"*, dio Gonzálezek. Portugalen arabera, berriz, paellak Jardunaldiei jarraipena emateko aukera eskaintzen die.

Paella erraldoia egiteko 100 kilo arroz, 80 kilo oilas-

ko, 60 kilo itsaski, 40 kilo barazki eta 50 litro olio erabiliko dira eta osagaiak eta behar den tresneria debalde eman edo utziko dizkiote González zentzuzko hornitzailek eta herriko dendek.

### Tiketak salgai

50 boluntario inguru ere musu-truk arituko dira egun horretan lanean, guztiak Er-

muko Merkataria eta Ostalarien Elkarteko kideak: jantzeria prestatzen, plazan mahaiak ipintzen eta arroza, ardoa eta kafeak zerbitzatzen, besteak beste. *"Boluntarioak topatzea nahiko erraza izan da"*, dio Gonzálezek eta horiek Udalak oparitutako kamisetak jantziko dituzte.

Tiketari dagokionez, 600 tiket aldez aurretik salduko dira (B. de Dios iturgindegian, Anboto burdindegian eta Mariasun loradendan) eta beste 200 tiket egunean bertan, 4 eurotan: paella, edaria, ogia

eta kafea barne. Paella jan ez, baina ekarpen ekonomiko egin nahi dutenek 'fila zero' tiket sinbolikoa erosi ahal izango dute EMOEko tabernetan, 2 eurotan.

Horrez gain, 600 txorixo pintxo inguru ipiniko ditu salgai arratsaldean (pintxo eta edaria, 1,50 euro) eta gauean DJ eta karaokea egongo da plazan. Antolatzailea ziur dago herriaren erantzuna positiboa izango dela. Jasotako dirua, berriz, Udaleko Zerbitzu Sozialen bitartez kudeatuko da.

## Jardunaldi Gastronomikoak, ekainaren 10etik 16ra

Pintxo lehiaketa izango da Gastronomía Jardunaldien lehen ekimena. Hilaren 10etik 16ra herriko tabernekin prestatutako pintxoak dastatzeko aukera egongo da (1,30€). Be-laustegi jatetxeko Josu Mugerzak, Makatzetako Carlos Gulinek eta Lobiano Gastronomía Elkarteko kide batek osatuko dute epaimahaia eta gainera herriko jendeak aukeratutako pintxoak ere saria jasoko du. Hilaren 11n, martitzena, 8 eta 12 urte bitarteko umeentzako patata frijituaren dastaketa egingo da Udal Liburutegian 17:30ean eta 12an, 21:00etan, dastaketa afaria egingo da Txalaparta Elkartean. Villaverde de Pontoneseko (Kantabria) 'El cenador de Amos'eko Jesús Sánchezek kozinatuko du afaria eta parte hartzeko aldez aurretik izena eman beharko da. Ostiralean, ekainak 14, Iberikoei buruzko hitzaldi eta dastaketa egingo da Udal Liburutegiko sarreran, 19:30ean, Luis Cañas ardoekin batera. Gainera, Pedro Maeso gitarristak girotuko du ekitaldia. Larunbatean, hilak 15, XIII. Azoka Gastronomikoa egingo da plazan eta bertan hainbat ardo, sagardo, txakolin, olio, pate, perretxiko eta marmeladak dastatzeko aukera egongo da, besteak beste. Goizean Ermuan Kantuan burutuko da, eguerdian paella erraldoia eta arratsaldean bakailao lehiaketa eta 'txistorrada' herrikoa. Gauean musika eta karaokea egongo da.

**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

**Proba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**ALBOKA**

MUSIKA  
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitria
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PRODUCTOS  
SELECTOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

**MAYTE**

Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
ERMUA





**AUKERA ZABALENA!**

**AURREMATRIKULA:  
MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 7RA**

TEL: 943 20 84 44  
www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com

twitter @UniEibarErmua  
www.facebook.com/iesunibhi

**HEZIKETA ESKAINTZA:  
A ETA D EREDUAK**

**PROIEKTUAK ETA JARDUERAK**

Nazioarteko ikasle-trukeak	Urrats Bat
UNI Encounter	Agenda 21
Hizkuntzaren normalkuntza	Informatika ingelesez
Osasunarentzako programa	Hezibi

**HEZIKETA ZIKLOAK**

**MARKETING ETA MERKATARITZA**

Merkataritza Jarduerak  
Nazioarteko Merkataritza

**INFORMATIKA**

Mikroinformatika sistemak eta sareak  
Plataforma anitzeko aplikazioen garapena  
Sareko informatika sistemen administrazioa

**ADMINISTRAZIOA**

Administrazio kudeaketa  
Administrazio eta finantzak

**HEZIKETA FISIKOA**

Aktibitate fisiko eta  
kirol animazioa



**100 urte  
etorkizuna sortzen**



IEFPS-GLHBI  
**Armeria Eskola<sup>x</sup>**

**Izenematea:  
Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra arte**

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44  
e-mail: eibar@armeriaeskola.com

- **FABRIKAZIO MEKANIKOA**
- **MANTENIMENDUA**
- **MEKATRONIKA**
- **ROBOTIKA**
- **ELEKTRIZITATEA**
- **ELEKTRONIKA**
- **AUTOMATISMOAK**
- **TELEKOMUNIKABIDEAK-  
INFORMATIKA**
- **DISEINU INDUSTRIALA**

**www.armeriaeskola.com**

# JON IÑAKI ISASTI

**- Erraza izan zen baserri-tik kalera jaistea?**

Bai, 7 urterekin ez zara ohartzen. Alfako eskoletan ikasten hasi nintzen, Ermuan lehengusuak nituen eta aste-bururo baserrira joaten ginene.

**- Gaztetako oroitzapenik?**

Herri guztietako santuak ezagutzen genituen! Jaiarik ez zegoenean Eibarrera joaten ginene, Ermua herri txikia zen oraindik.

**- Non egin duzu lana?**

Ostalaritzan egin izan dut baina osasun kontuak direla eta erretiratuta nago. Gredos taberna izan ondoren lonja batzuk erosi nituen. Ertz taberna ipini nuen eta Zutik dagoen tokian, kirol-denda bat hasieran eta garagardotegia gero. Ertz saldu nuen eta Zutik traspassoan daukat...

**- Zer izan nahi zenuen txikitari?**

Turista, bidaiatu nahi nuen.

**- Eta ametsa bete duzu?**

Bai, Holanda, Italia, Frantziako Britainian, Austria eta Portugalen egon naiz.

**- Zer daukazu oraindik ikusteko?**

Beste herrialde guztiak! Islandiara joatekotan egon nintzen baina, hainbat arrazoiengatik, ez nuen gauzatu.

**- Hizkuntzekin ondo moldatzen zara?**

Piperririk ere ez dut ulertzen, baina ez dut sekula arazorik izan!

**- Abenturazalea zara?**

Bai, leku guztietara kanpin-dendarekin joan izan naiz. Orain dena errazagoa da: txanpon bakarra, inter-



**Iurretako San Apolonia auzoko Lebeiti baserrikoa da. Seme bakarra. 7 urterekin etorri zen Ermura, aitak Alfan egiten zuelako lana, eta 62 urterekin oso maitatua sentitzen da Ermuan, lagun onez inguratuta. Ezkonduta dago eta 22 urteko alaba du, Idurre.**

net, mapak... lehen abentura zen! Lagunekin joaten nintzen hasieran eta emaztearekin gero.

**- 20 urte baino gehiago elkarrekin. Zein da maitasunari eusteko errezeta?**

Elkarrekin denbora pasatzea. Arazo mota ezberdinak izan ditugu eta bion artean konpondu. Bikotea indartua irteten da egoera latzetatik.

**- Zer irakatsi dizute gurasoek?**

Aitak mendira eramaten ninduen eta horretan jarraitzen dut, bakarrik eta Artarra Mendi Taldearekin. Oso gustura nago taldean.

**- Gustuko duzun mendia?**

Urbasako mendilerroa.

**- Azken gailurrak?**

Uztailan Balaitusera joan nintzen eta abenduan Mulhacen eta Veletara.

**- Egiteko dituzunak?**

Montblanc eta Cervino.

**- Mendira joateko, zer duzu ezinbesteko?**

Makilak, jakina, eta motxilan: ura, janaria, labana, iparrorratza edo GPSa eta zira.

**- Beste kirolirik?**

Mendi bizikleta.

**- Musika gustatzen zaizu?**

Euskal musika: Mikel La-boa, Benito Lertxundi, Anje

Duhalde... Azkenaldian, Ken Zazpi, Kepa Junkera... Artarraiko bideoak grabatu eta editatzen ditut eta musika modernoa behar dut!

**- Antzokira joaten zara?**

Larregi ez, garestia delako. Pepe Viyuela ikusi nuen azkenekoz.

**- Irakurtzen duzu?**

Bai, mendiko liburuak. Iñaki Otxoa de Olzarena dut orain eskuartean.

**- Jateko?**

Zapo ederra eta txuleta.

**- Egunero egiten duzun hori?**

Jaiki eta irratia piztu. Horrez gain, gurasoei ogia eramane.

**- Zure eguneko momentua?**

Oheratzean.

**- Zure bizitzako eguna?**

Ezkonduta nintzenean eta alaba jaio zenean.

**- Akatsik baduzu?**

Asko. Burugogorra naiz.

**- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Hipokresia.

**- Erraz haserretzen zara?**

Bai, eta asko kostatzen zait berriro adiskidetzeara.

**- Bizitzak zerbait irakatsi ditu?**

Jendearengan konfiantzarik ez izaten, esaterako.

**- Lagun bati zer eskatzen diozu?**

Adiskidetasuna.

**- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Guztiontzako lana dagoela eta ditxosozko krisia amaitu dela. Optimistagoak izan behar harko ginateteke.

Dorleta Vidal



**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI  
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos



Aitor López, 3. mailako arbitroa:

## “Gaztaroari uko egin behar diote arbitro izan nahi dutenek”

15 urterekin arbitro-eskola batean izena eman zuen Aitorrek eta ordutik hona 2.000 partida baino gehiagotan aritu da epaile. Bost denboraldi eman ditu dagoeneko 3. mailan eta, azkenaldian, arbitrajea uzteko ideia darabil buruan. Azken 7 urteak Malagan eman dituen arren, 36 urteko ermuar hau noizbehinka bueltatzen da bere jaioterrira.

- *Bizkaian arbitratu zenuen lehen partida. Gogoan duzu?*

Bai, 16 urte nituen eta Durangoko ‘Extremeño Futbol Taldeko’ 1. kadete mailako partida arbitratu nuen. 2 txartel hori atera nituen eta emaitza banako berdinketa izan zen. Hurrengo 2 urteetan kadete, infantil eta jubenetan ibili nintzen.

- *2. eta 1. maila erregionaletan eta Preferentean ibili eta gero Malagara joan zinen. Arbitratzen jarraitzeko asmorik bazenuen?*

Ez nekien jarraitu ahal izango nuen. 29 urte nituen eta, oso nagusia ez banintzen ere, erretiratzeko asmoz joan nintzen. Baina hara heldu eta lagunik ez nenez arbitratzen hasi nintzen, zerbait egitearren. Eta... hara! Serio hartu, entrenatzen hasi eta 3. mailara igo nintzen segituan.

- *Zeintzuk baldintza bete behar dira hurrengo mailara salto egiteko?*

Partida guztietan ‘informa-tzaile’ batek puntuatzen du arbitroaren lana, 1. mailako partiduetan bezala: txartelak modu egokian erabili dituzun, sasoi onean zauden, partiduaren kontrola izan duzun... Bestalde, futbol-arautegiari buruzko azterketa teorikoak eta proba fisikoak egiten ditugu. Urte bukaeran, batez besteko nota one-nak dituzten arbitroak hurrengo mailara igotzen dira.

- *Partida bukatutakoan, egindako lana aztertzen duzu?*

Bai, marrazainekin komentatzen dut. Huts egiten dugunean ez gara gure artean haserretzen, pertsonak garelako eta niri gertatu izan zait zerbait adierazi eta etxean, telebistan, partida ikusterakoan esatea: baina zer egin dut?

- *Eta nola egiten duzu lo gau horretan?*

Ondo, nik ez diodako ez jokalariei ez nire buruari iruzurrik egiten: ikusten dudana adierazten dut. Marrazainek diotena ere eztabaidea ezin da niretzat.

- *Nolakoa zara arbitro moduan?*

Zuzena eta inpartziala.

- *Nor miresten duzu?*

Delgado Ferreiro eta Paradás Romero. 1. mailan aritzen dira eta lagunak ditut.

- *Honetaz gain, lanik egiten duzu?*

Nire lana daukat, baina honnek asko laguntzen dit, 500 eta 800 euro artean irabazten ditudalako hilerero. Mundu honetan dirua ez da garrantzitsua baina tamalez, krisia dela eta, jende asko hurbildu zaigu diruagatik.

- *Arbitro gazteei ere klaseak ematen dizkiezu...*



Bai, parrandak alde batera uzten badituzte, etorkizun polita izan dezakete. Nik, konturatu orduko, 30 urte nituen eta zaharregia nintzen igotzen jarraitzeko. Neurri batean, gaztaroari uko egin behar diote aurrera jarraitu nahi dutenek.

- *Inoiz lagatzea pentsatu duzu?*

Azken urtean bueltak ematen ari naiz: Delegatua izan nintekeen, ‘informa-tzaile’ edo entrenatzaile, baina futbola alde batera erabat utzi barik.

Dorleta Vidal



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA



*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12




**DANAONA**  
IZOZTUAK ETA  
AURREKOZINATUAK



GOIENKALE Z/G  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598

## Kirol informazioa matxista da?

**B**adakit albisteen tituluek ezin dutela galdera ikurririk eraman, baina kirol informazioa matxista ez izateko bideak egonda, joera sexista horri eusteko argudioei arreta ipini gura diegu. Jendartearen gainerako arloetan bezala, kirolean ere, gizonen protagonismoa naturalizat hartzen da, gizartearen erdia bakarrik badira ere. Politika albistek maskulinoak direla kexatzen garenean, errealitatea islatzen dutela esaten digute. Politikan, Euskal Herrian batez ere, kargurik altuenak gizonen esku daude (lehendakaritza kasu). Kirolean, ordea, deneriko protagonistak daude, emakumeak eta gizonak. Besteak beste, Athletic-ek bi talde ditu (emakumez-

koena ondoen dabil, gainera), Bera Bera saskibaloit taldeak liga irabazi berri du (Matxalen Ziarsolo ermuarra tartean), Realak hockey liga irabazi du (emakumezkoen taldeak, jakina!)... Horrelakoe-tan, futbolaren nagusitasuna azpimarratu ohi da. Hala ere, Athletic-ek berak emakumezkoen taldea baztergarritzat hartzen du, haien web-orrian horrela zehaztuta: gizonen taldeari '1. Taldea' esaten dioten bitartean, sariak irabazten dituen taldeari, oster, 'Emakumezkoak' esaten diote. Gogoratu behar da web-orri hori eta sexuaren araberako Athletic-en bazterkeria guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza publikoaren babespean egiten direla.



*Maria González Gorosarri*

Emakumeen futbolak hedabideen arretarik ez duela egiaztatuta, jendartearen interesaren gaia suertatzen da. Horren arabera, gizarteari ez zaio emakume kirolik gustatzen. Euskal Herrian ere saskibaloia zaletasunak gehiezin hamar urte izango ditu eta 1Formulakoak, gutxiago oraindik. Kirol zaletasun horiek hedabideen babes barik sortu zitezkeen? Emakume kirola sustatzeak errealitatea islatzen du eta, gainera, jendarte justu baten aldeko konpromisoa da.

**Saskibaloia, 1 Formula...**  
**Kirol zaletasun horiek hedabideen babes barik sortu zitezkeen?**

**Enter**  
 INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
 Tel. 943 17 90 37  
 e-maila: enter-i@arrakis.es

optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

**MUGA**

San Pelaio 4A behea  
 Telefonoa: 17 64 77  
 ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elekratresnak,  
 telebistak, bideoak,  
 musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
 ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**T** XALAPARTA  
 ABERNA

Eta asteburuetan  
 pintxoak, afariak  
 eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**





Maiatzak 24  
Zorionak June zure 4. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoan partez.



Ekainaren 2an  
Zorionak Jon! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu handi bat aita, ama eta Aiurren partez.



Maiatzaren 23an  
Aupa Jone, atzo zelakoan eta ...13 urte! Ze erraza den zu maitatzea! Zorionak denon partez, txipristina!!



Apirilaren 26an  
Martzel Garitagoitiak 91 urte bete zituen. Zorionak familiaren partez eta urtebete barru ospatu dezagula.



Maiatzak 28an  
Zorionak Naroa zure lehenengo urtebetetzean eta musu handi bat etxekoan partez.



Maiatzaren 31  
Zorionak Olatz (txokolatera)!!! Ondo pasa zure 5. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoan partez.



Maiatzaren 28an  
Zorionak Marta familia osoaren partez. Gure txikitxoak bere lehenengo urtea betetzen du.



Ekainaren 15ean  
Zorionak Aiala zure 2. urtebetetzean!!! Bihotz bihotzez aita, ama eta Lukenen partez.

Drogeteniturri aldizkaria etxean  
**DOAN** jaso nahi duzu?

943 17 93 50  
drogeten@gmail.com

Bidali zure zorion-agurrak  
drogeten@gmail.com helbidera.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:

**EKAINAREN**  
12a

**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Basorrian  
Hazitako Txalak*  
GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**PRO**

-ARRAINDEGIA  
-ITSASKIAK  
-ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**MALLABIA  
1962**

Argazki hau 1962ko apirilaren 22an aterata dago. Bertan agertzen dira: Amaia Ortuzar, Agurtxane Ormaetxea, Belen Abendibar, M<sup>a</sup> Carmen Solozabal, M<sup>a</sup> Jesus Olalde, Jesus Mari Sarriguarte, Bixente Aranburu, Santos Aranburu, Jose Ramon Olalde, Bixente Azagirre, M<sup>a</sup> Carmen Amutxastegi, Begoña Olaizola, Arantza Mallabiabarrena, Gema Milikua, Mila Arregi, M<sup>a</sup> Carmen Astarloa, Jesus M<sup>a</sup> Miñon, Jose Antonio Ormaetxea, Eugenio Aranburu, Jose Uzuriaga, Pedro M<sup>a</sup> Astarloa, Jose Benito Aranburu, Jose Antonio Gisasola, Jose Antonio Pagaldai eta Juan M<sup>a</sup> Antxia.

**ERMUA  
1951**

Club Deportivo Ermua 1951. urtean sortuzen, orain dela 62 urte, eta hemen da lehen futbol taldea. Orduan ez zegoen futbol-zelairik Ermuan eta kanpoan jokatu behar izaten zituzten partida guztiak. Bertan agertzen dira, goiko ilaran, ezkerretik hasita: Zubizarreta anaiak (Jose Luis eta Alfonso Carlos), Carlos Olañeta 'Pedromarianekua', Victor Mallagarai 'Ostatukua', Pedro López, Esteban Bilbao eta German Milikua. Behean: Jose Antonio Olabarri, Jesus Arrizabalaga 'Joxebenta', Luis Mari Izagirre 'Herrero', Tomas Gorrotxategi 'Larrosia', Gonzalo López 'Carranza' eta Loren Goitandia.

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefonia 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**Quetzal**

[arropa, bitxiak, opariak...]

Goenkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

**berria!!**

ekinetik aurrera  
**Eibarren** ere

**mari  
asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea • Tel. 943 179 040 • Faxe 943 179 197  
48260 • Ermua • Bizkaia



**Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina martxan egongo da ekainaren 30era arte eta gainera, apirilean zehar, XXI. Liburu eta Disko Azoka burutu zen eta Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu ere.**

**Gustuko duzu liburuak irakurtzea? eta oparitzea?**

**Maileguan hartzen dituzu?**

**Liburu tradizionala ala elektronikoa nahiago?**



Ez dut liburirik irakurtzen, egunkariak nahiago ditut, kiroleko informazioa batez ere, eta ez diot inori liburirik oparitzen. Nire ilobak liburu digitala du eta gustatzen zait, letren tamaina handitu daitekeelako. Ez da beharrezkoa betaurrekoak erabiltzea.

**José Luis Berzosa, 67 urte**



Bai, dezente irakurtzen dut eta sarri oparitzen ditut liburuak eta diskoak. Gehienetan erosi egiten ditut, ez dakit zergatik, etxean jada ez baitaukat lekurik! Baina oroigarri izateko edo... Teknologiarekin ez naiz ondo moldatzen eta nahiago dut liburu esku artean izatea.

**Carmen del Río, 40 urte**



Bai, egunero irakurtzen dut, baina ez ditut liburuak maileguan hartzen, erostea nahiago dut. Amari askotan oparitzen dizkiot liburuak. Bestalde, papera nahiago dut, e-bookarekin dirua aurrezten delako, baina liburuak Interneten pirateatu daitekeenez, idazleei lana lapurtzen zaielako.

**Oihane Vega, 20 urte**



Azkenaldian ez dut larregi irakurtzen, umea dela eta denbora gutxi dudalako. Irakurtzen nuenean liburuak erosi egiten nituen gehienetan eta e-booka ezagutzen dudan arren, ez dut sekula erabili.

**Javi Fernández, 38 urte**



**Tasio eta Sabino**

- (Telebistan) e-Book berria!! 200 gr.!! 100 liburu baino gehiago gorde daitezke!! Beherepenak!!

- Maisuak esaten ziguna egia da! Jakiteak ez du ogirik jaten!!

## MUSIKA

**Hilak 15:**

Kalejira: Ermuan kantuan. 12:30ean. Plazatik irtenda.

**Hilaren 18tik 21era :**

Alboka Musika Eskolako ikasleen kontzertuak. 19:30ean. Hilaren 18 eta 19an, Lobiano Kultur Gunean; hilaren 20 eta 21ean, Antzokian.

**Hilak 29:**

Elektrojaia: musika elektronikoaren jaialdia. 15:00etatik aurrera. Baldespina Markesaren parkean.

## DANTZA

**Hilak 8:**

'Plazara dantzara' Adolfo Jainagarekin + Larraindantza (Txindurri eguna). 19:30etan. Plazan.

**Hilak 9:**

Txindurri eguna: Kalejira eta dantza erakustaldia Orbe Kardenalaren plazan. 12:30ean.

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 2ra arte:**

Margoak eta egurrezko eskulturak: J. Rescalvo eta J. Ziarsolo.

**Hilaren 3tik 16ra:**

Margoak: Mugartea taldea.

**Hilaren 17tik 30era:**

Margoak: Udal Margo Eskolako ikasleak. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

## BESTELAKOAK

**Hilak 1:**

Kulturen arteko jaialdia: Musika, tailerrak, haurrentzako jolasak, gastronomia, artisautza... 11:00etan. Plazan.

**Hilak 7:**

Ikastola eguna: puzgarriak, Xaibor Dja, Oihan Vega Dja. 16:00etatik aurrera. Ikastolan.

**Hilaren 10etik 15era:**

Jardunaldi Gastronomikoak.

**Hilak 15:**

Gastronomiari buruzko azoka: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardenalaren plazan.

**Hilak 16:**

Haize zabaleko margo lehiaketa. 9:00etan.

**Hilak 16:**

El Rocio-ko erromeria. 12:00etan. Ongaraiko parkean.

**Hilak 22 eta 23:**

Motordunen jaia: hainbat ekitaldi. Orbe Kardenalaren plazan.

**Hilak 23:**

San Juan sua: hainbat ekitaldi. 22:00etan. Orbe Kardenalaren Plazan.

**Hilaren 24tik 30era:**

San Pelaio auzoko jaia: hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan.

Patxi López

PHOTOSHOP  
IKASTAROA  
MALLABIN

Maiatzaren 27, 28, 29 eta 31n 18:00etatik 20:00etara eta ekainaren 1ean 10:00etatik 14:00etara. Izen ematea Herriko tabernan maiatzaren 25era arte. Prezioa, 10 euro.

MALLABIKO  
FUTBOL  
TALDEAREN  
EKIMENAK

**Maiatzaren 25ean eta 26an:** Eskolarterako futbito txapelketa. Larunbatean, 9:00etan, aurre-benjaminak; 16:00etan, benjaminak eta domekan, 9:15etan, alebinak.

**Maiatzaren 31n eta ekainaren 1 eta 2an:**

Mallabiko frontenis txapelketa bikoteka, Mallabiko pilotalekuan. Deitu: 669028718.

**Ekainaren 17an:** Mallabiko tenis txapelketa. Izena emateko epea ekainaren 12ra arte. Deitu: 669028718.

**Ekainaren 14, 15 eta**

**16an:** Euskararen aldeko futbito txapelketa. Prezioa: 70 euro. 600, 400, 250 eta 150 euroko sariak. Deitu: 669028718.

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Infreñu  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com



Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312



www.aki.es



**ADI,  
IREKITZERA  
GOAZ!**

**DURANGO  
Maiatzak 23**



**€36,95**

**Erretxinazko  
armairua Jolly**

Apalduna.

Neurriak: 166 x 68 x 38 cm.



**AKÍ DURANGO - BI-2632 - Montorreta kalea**



**Brikolajea • Lorezaintza • Dekorazioa**



# udan ere

## EMAN EUSKARA ELKARRI



### IKASTARO TRINKOAK

EKAINA / UZTAILA / IRAILA

Ekainaren 24tik uztailaren 19ra  
eta irailaren 2tik 27ra

4 ORDUKOAK (80 ordu)

Goizez zein arratsaldez

- 1go (B1) eta 2. (B2) mailako azterketak prestatzeko ikastaroak
- Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

5 ORDUKOAK (100 ordu)

Goizez zein arratsaldez

- 3.maila (C1) / EGA
- AZTERKETAK URRIAN

EMAN IZENA EKAINAREN 14A  
BAINO LEHEN

Ermuko zein Mallabiko udalen  
dirulaguntzak

# aek



902 36 22 94  
[www.aek.org](http://www.aek.org)

KALTXANGO AEK  
Bizkaia etorbidea 13, behea  
943 17 19 40  
[kaltxango@aec.org](mailto:kaltxango@aec.org)  
ZENTRO HOMOLOGATUA